

EUSKARA BATZORDEAK 2012ko EKAINAREN 13an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Josu Erkiaga jna. (Udal Euskaltegia)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)
Bego Zabaleta and. (San Fidel Ikastola)
Oihana Cabello and. (HITZA egunkaria)
Ekain Ormaetxea jna. (Ezker abertzalea)
Tamara Arza and. (ELA sindikatua)

Idazkaria:

Bitor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:00

Ezin etorria zuritu dutenak:

Luis Ortuzar jna. (EAJ eta Gernika-Lumoko Institutua)
Eduarne Atxikallende and. (Busturialdeko Irrati Telebistaa)
Barrutialde Institutua
Barrutia Ikastetxea

1).- 2012ko ekainaren 13ko batzarrari dagokion akta onartzea, hala balegokio.

Aho batez onartu da.

2).- 2012ko Udal Aurrekontuan onartu diren partiden arabera, euskara aurrekontua egokitzea.

Euskara zinegotziak aurreko batzarrean aurkeztutako egokipena gogorarazi du eta ekarpenak egin edo zalantzak planteatzeko txanda zabaldu die batzarkideei.



BEB elkarteko ordezkariak 2.1.3.1. ekintzari buruzko galdera egin du, jaitsiera dela eta. Argitu egin zaio zutabe baten azaroko zirriborrokoa datorrela eta egokipena dela hurrengoa. Beraz, 18.000 eurotik 15.000 eurora jaitsi da, partidaren murrizketa bitarteko. Diru laguntza eskabide guztiei aurre egiteko nahiko ez balitz, hurrengo urterako utziko dira erabakitzeke geratuko diren eskabideak.

AEK-ko ordezkariak azalpenak eman ditu DBH-ko ikasle etorkinei ematen zaien errefortzurako ikastaroari buruz. Asumitzen dute partida murrizketa eta, zalantza barik, neguko ikastaroa lehenesten dute eurek ere.

Zinegotziak argitu egin du zeintzuk diren mantendu diren kopuruak eta zeintzuk murriztu. Nahitaez egin beharreko murrizketen proposamenerako kontuan hartu diren bi irizpide nagusi biak azaldu zituen: batetik, jarduerak eragingo dion jende kopurua; bestetik, egunerokotasunean izango duen eragina. Nabarmendu egin du Kontseiluari dagokiona mantentzen dela, arestian aipatutako irizpideekiko egokitasunagatik, eta, baita ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren mugak gaindituta Euskal Herri osoa kontuan hartzen duen plangintza duen erakundea delako.

Kanpaina berri bati buruzkoa ere argitu egin du, **ZUKZERGATIKEZ** : aurreko bileran egon ez ziren batzarkideei fotokopia bana eman zaie; dena den, deialdiarekin batera atxikita bidali zitzairen guztiei, posta elektronikoz, egitasmoazko informazioa.

Euskara dinamizatzaileak **ZUKZERGATIKEZ** kanpainarako aurreikusitakoan diseinurako kopururik dagoen galdetu du, kanpaina horren helburua kontuan, merezi duelako taxuzko zerbait kaleratzea. Kopuru txikia bada ere, horretarako gehitzea proposatu du.

Erabakia:

Bagabiz aldizkarirako kopurutik 200 euro murriztu eta ZUKZERGATIKEZ kanpainari gehitu.

AEK-ko ordezkariak guraso taldeei buruzko informazioa eman du. Iaz 27 guraso izan baziren, 2011-2012 ikasturtean 56 guraso izan dira, lau taldetan banatuta. Beraz, aurrekontua bikoiztu egin da eta aurreikusitako kopurua txiki geratu da.



Erabakia:

Guraso taldeen ikastaroari dagokion fakturari aurre egin ahal izateko, ikasle etorkinen errefortzuko kopurutik geratuko den apurra (1.000 bat euro) eta 8.4.2.5. ekintzakoa (unitate didaktikoak: datorren urterako utzi 1.700 euro horiek) erabiltzea.

Zinegotziak azalpenak eman ditu HITZA egunkariarekin Udalak duen hitzarmenari buruz. Azkenean, biztanleko 3 euro ezin eta 2 euroko baremoari eutsi zaio kopurua finkatzeko. Horri lotuta, Santa Luziako etxebizitza berrien inguruan garatu den harpidetza kanpainako datuak eman ditu. Irailerako ikusiko da kanpaina horren emaitza zein den.

HITZAko ordezkariak dioenez, kanpaina garatu ostean beharrezko izango da pertsona bat atetik-aterako aurrez-aurreko galbahea pasatzen jartzea, harpidetzarako konpromisoak finkatzeko.

3).- 2013-2023 eperako Plan Estrategikoa (ESEP: euskara Sustatzeko Ekintza Plana) eratzeke eman beharreko urratsetarako proposamena.

Aurreko batzarrean esandakoari jarraituz, batzordeko idazkariak argitu du Jaurlaritzako HPS-koekin egin duela berba eta ESEP hori oso-oso berde dagoenez, indarrean dagoen Plangintzako markoari eustea dela egokiena. Beraz, aurreko batzarrean banatutako txostenetik, kontuan hartu beharko den markoa 2009-2012 epealdikoa izango dela (helburu estrategikoak, esparruak,...), baina Plan Estrategiko berrirako egindako proposamena baliokoa dela (foroak, kronograma,...),

Ormaetxea jaunak dioenez, Euskararen Aholku Batzordeak azaroaren azkeneko aurkeztuko omen du EAE mailako ESEP-erako hausnarketa/markoa, aurkezten bada, eta, ondorioz, Plana bera eratzea ere atzeratu egingo dela.

Euskara dinamizatzailleak aurreko batzarrean aipatu zuenari eutsi dio, hau da, foroak eratzerakoan mixtoak izatea ere komenigarria dela hausnarketak eta ekintza proposamenak kontrastatzeko.

BEB elkarteko ordezkariak uste du foroekin jo baino lehen hausnarketa sakonagoa beharko litzatekeela.



Udal euskaltegiko ordezkariak adierazi duenez, berak bizi izan du antzeko prozesua, euskalduntze-alfabetatze esparrurako foroa eratu duelako Jaurlaritzak. Foroak martxan jartzeko metodologia eta abarrak argitu beharra dagoela dio.

Batzordeko idazkariak azaldu egin du mahai-gainean dagoen proposamenen foro kopuru bat finkatzen dela, kontuan izanik bizirik dauden foroei etekina atera behar zaiela; bestalde, foroen funtzionamendurako irizpide orokorrak ere ezartzen dira; azkenik, kronograman bertan finkatzen da foroetako kideei lanerako zer eta noiz eskainiko zaien (hausnarketarako informazioa, esparruetako indizeak, fitxak,...). Horrexeri ekiten ari zaio une honetan, amaitzear dagoen plangintzaldiko balorazioari eta esparruetako egoerari buruzko hausnarketari (indizeak, indarguneak, ahuleziak,...).

AEKko ordezkariak eta zinegotziak lehen bilera baterako foro ezberdinetako jende guztia bil litekeela diote, talde handia-txikia-handia dinamika erabiliz ondorio interesgarriak atera litezkeelako.

Erabakia:

Irailaren 12an, 18:30ean, hurrengo batzarra egitea, aurkeztu den proposamenari buruzko ekarpenak jasotzeko eta parte-hartze prozesua ebazteko.

5).- Erreguak eta galderak.

Ez da galderak azaldu.

Beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara Teknikaria (HNT1)
Bittor Zarrabeitia

